

2018-2019KO EPE-A: GAINDITUEN ZERRENDAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Gaindituen zerrendak jasotzen dituzten Ebazpenak argitaratzea

Osakidetzako **2018-2019ko EPEaren web orrian** argitaratu dira **2023ko martxoaren 2an** oposizioaldiko gaindituen zerrendak, puntuazio hurrenkeraren arabera, jasotzen dituzten Giza Baliabideetako zuzendariaren Ebazpenak, **kategoria hauetakoa**:

- FAK. ESP. ALERGOLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA
- FAK. ESP. AHO ETA AURPEGI-MASAILAETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. PEDIATRIA KIRURGIKOKO MEDIKUA
- FAK. ESP. ZAINKETA ARINGARRIETAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. DERMA. MEDIKO-KIRURGI. ETA BENEREOLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. LARRIALDIETAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA
- FAK. ESP. GAIXOTASUN INFEKTSIOSOETAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO MEDIKUA
- FAK. ESP. HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. LANEKO MEDIKUNTZAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA
- FAK. ESP. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. MEDIKUNTZA NUKLEARRA
- FAK. ESP. MEDIKUNTZA PREBENTIBO ETA OSASUN PUBLIKOKO MEDIKUA
- FAK. ESP. NEFROLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. NEUMOLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. NEUROLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. ONKOLOGIA MEDIKUKO MEDIKUA
- FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. HAURRENTZAKO PSIKIATRIAKO MEDIKUA
- FAK. ESP. GSU-KO MEDIKUA
- FAK. ESP. ANALISI KLINIKOEN MEDIKU TEKNIKARIA
- FAK. ESP. BIOKIMIKA KLINIKOKO MEDIKU TEKNIKARIA
- FAK. ESP. INMUNOLOGIAKO MEDIKU-TEKNIKARIA
- FAK. ESP. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO MEDIKU TEKNIKARIA
- FAK. ESP. OSPITALE-FARMAZIAKO TEKNIKARIA
- FAK. FARMAZIALARI TEKNIKARIA
- FAK. ODONTOLOGO TEKNIKARIA

- GOI-MAILAKO INFORMATIKARIA
- GOI-MAILAKO TITULUDUNA EKONOMIAKO GOI-TEK.
- GOI-MAILAKO TITULUDUNA - ANTOLAKUNTZAKO GOI-TEK.
- GOI-MAILAKO TITULUDUNA - ERGONOMIA PREBENTZIO ETA PSIKOSOSIOLOGIA TEKNIKARIA

- INGENIARI TEKNIKOA
- SUKALDARIA
- INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOETAKO TEKNIKARIA

- FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA

- LARRIALDIETAKO IBILGAILUEN GIDARIA
- GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

Era berean, **hautaketa-prozesuko emaitzekin** lotuta, informazio hau argitaratu da:

- Oposizioaldiko puntuazioaren ebaluazioari eta kalkulari buruzko informazio-zerrenda.

Gaindituen zerrendak argitaratu ondoren egin beharrekoetarako epea.

Kategoria horietako interesdunek egin beharrekoetarako izango duten epea **2023ko martxoaren 3tik martxoaren 16ra, biak barne, izango da.**

Interesdunek egin beharrekoak

Interesdunek gaindituen **zerrenda jasotzen duen Ebazpenaren kontra erregistratutako erreklamazioa aurkeztu ahalko dute**, 10 egun baliouduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hau da, **2023ko martxoaren 3tik martxoaren 16ra, biak barne.**

Gaindituen zerrendan dauden pertsonen, **hautaketa-prozesuarekin jarraitu nahi badute, jarraian aipatutakoak** egin beharko dituzte **2023ko martxoaren 3tik martxoaren 16ra bitarteko epean, biak barne, eskakizunen eta merezimenduen alegazioari** dagokionez:

1. **Gaindituen zerrendan daudela egiaztatzea eta baita Osakidetzak eskura jartzen duen informazioa ere** (2018-2019ko EPEko webguneko arlo pribatuaren bidez)

Osakidetzak eskura jarritako informazioa zuzena izango ez balitz, berrikustea/aldatzea eskatu ahalko dute, Datuak aldatzea eskatzeko dokumentuaren bidez (dokumentua abisu honetan duzue: "Gaindituen zerrenda: Eskakizunak eta Merezimenduak alegatzeko dokumentua).

2. **Eskakizunak eta Merezimenduak alegatzea eta/edo entregatzea** deialdiaren oinarri orokor eta espezifikoetan eta gaindituen zerrenda jasotzen duen Ebazpenean ezarritako moduan.

Eskakizunak eta Merezimenduak kontsideratzeko azken eguna deialdien 2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan izena emateko azken eguna izango da, **euskararen ezagutza egiaztatzerakoan izan ezik** (hizkuntza-eskakizunak).

Eskakizunak:

Titulazio akademikoa: aipatutako titulazioa alegatu beharko duzu, aplikazio informatikoaren bidez eskatzen dizuten informazioa mekanizatuz.

Nazionalitatearen eskakizuna: NANA (Nortasun Agiri Nazionala) ez baduzu, dagokion dokumentazioaren bidez akreditatu beharko duzu.

Desgaitasuna: desgaitasuneko/desgaitasun intelektualeko kupoaren barruan parte hartzen baduzu, aipatutako egoera aitortzen dien ebazpenaren kopia konpultsatua ekarri beharko duzu.

Merezimenduak:

Esperientzia profesionala: emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo notarioak emandako benetako kopia aurkeztu beharko duzu, deialdiaren oinarriekin adierazitako edukiarekin.

Osakidetzan emandako zerbitzuak ofizioz konputatuko dira; era berean, Osakidetzan erregistratutako beste Administrazio publikoetan emandakoak ere, baldin eta Osakidetzaren eskura jarri badira aplikazio informatikoan, baldin eta oinarri espezifikoen arabera hala badagokio.

Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena: merezimendu hauek aplikazio informatikoaren bidez eskatutako informazioa mekanizatuz alegatu beharko dituzu. Une honetan ez da beharrezkoa dokumentuekin akreditatzea.

Euskara:

Aplikazio informatikoan erregistratuta ez badago, akreditatuta dituzun **hizkuntza-eskakizunak alegatu ahalko dituzu** eskakizun eta/edo merezimendu gisa kontsideratu ditzagun, betiere eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzeko epearen azken egunera arte; hots, 2023ko martxoaren 16ra arte.

Eskakizun eta/edo merezimendu kontsideratuko dira ere, **2018-2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintzaren esparruan eginiko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proba espezifikoen bidez** egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak.

Aplikazio informatikoan sartzea

Osakidetzan dagoen informazioa egiaztatzeko eta eskakizunak eta merezimenduak alegatzeko, webera elektronikoki sartu beharko zara: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>, ibilbide honen bidez: Enplegu publikoa -> Aplikaziorako sarbidea.

Dokumentazioa ematea

Dokumentazioa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako moduan aurkez dezakezu (Estatutuko Administrazio Orokorraren, Autonomia Erkidegoko edozein Administrazioen, Lurraldeko Aldundien, Kabildoren eta Uharteko kontseiluen edozein Administrazioen eta abarren administrazio-organoko erregistroetan).

Aurrez aurreko arreta behar izanez gero, Osakidetzak aukera hauek ematen dizkizu:

Osakidetzako langilea bazara, zure Zerbitzu Erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzara jo dezakezu.

Osakidetzan lanean ez daudenentzat, aurrez aurreko arretarako lekuak jarraian jasotakoak izango dira:

Araba:

- Osakidetza.Zuzendaritza Nagusia. Hautaketa eta Horniketa Zerbitzua. Araba kalea, 45. Gasteiz
- Araba ESla. Txagorritxu Egoitza. (José Axotegi kalea z.g. 01009 - Vitoria-Gasteiz)
- Arabako Errioxako ESla. (Logroño-Vitoria errepidea, 59. km. Guardia)

Bizkaia:

- Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESla. (Gurutzetako plaza z.g. Gurutzeta-Barakaldo)
- Bilbao-Basurtu Erakunde Sanitario Integratua. (Montevideo etorb.,18. Bilbo)
- Barrualde-Galdakao ESla. (Labeaga auzoa z.g. Galdakao)
- Uribeko ESla. (Goietza kalea 32 - 48610 Urduliz)
- BOMS. Bermeoko Ospitalea (Tonpoi Bidea z.g. Bermeo)

Gipuzkoa:

- Donostialdea ESla. (Begiristain dk. pasealekua, z.g., Donostia- San Sebastián)
- Bidasoako ESla. (Zubieta finka, Mendeluko auzoa, z.g., Hondarribia)
- Debagoiena ESla. (Nafarroako etorbidea, 16. Arrasate-Mondragón)
- Goierri-Urola Garaiko ESla (Argixao auzoa z.g. Zumarraga)
- Debabarreneko ESla (Mendarozabal auzoa, z.g. Mendaro)

Aurrez aurreko arretako ordutegiak:

Astehenetik ostiralera: 9:00etik 14:00etara.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 2an.